

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013ko irailaren 13a
340. zenbakia. 24. urtea



Herritarrek ere tostetan

Traineruen denboraldian han eta hemen ibili dira oriotarrak, bai arraunean eta baita animatzen ere. Kontxako estropadak eta gero, plaza horiz jantzi zen.

05

Orioko kontuak
Kilometroak 2014

08

Kirola
OBBk brontzea European

19

Iritzia
Marisa Arruabarrena

25

Herritarra
Marc Molina

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |
FATXADEN ERABERRITZEAK |
IGDAILUEN PROIEKTUAK |
GREMIO KOORDINAKUNTZA |
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGDA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731 722

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80 • Mugikorra: 656 78 30 01 • 656 78 29 99

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47



AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

Joana Murgiondo
Aseguru-agentia

ASEGURUAK



ABESLARI, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

Gabon
TABERNA

plater konbinatuak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

HAIZE BERRI
taberna-jakintza-kultergoa

Plater konbinatuak,
bokatak,
hamburgesak,
razloak,
eguneko menua...
eta etxera eramateko zerbitzua!

Dakila Inbidiaren Erteara 1 • 41022 • 21 • Aizarna goitona Idoia

ITZIAR
kirolak



Tel. 943 83 31 03

KAIUA



Plater konbinatuak,
bokatak, hamburgesak...
ANBARAKO PORTUA 36, BEHEA TE: 943 040 000

GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibaiti Ondo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

24 orduko zerbitzua

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

www.IGLESIASCENTRALJEROS.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascentraljeros@yahoo.es
2010 OROIO

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogilarteako mundialak

ABESLARI KALEA 4 TEL: 943 83 16 57

Murgil zaitetz kiroldegian
2013-14 ikasturtea hastear dago eta!!!



karela
Orioko kiroldegia

Info+ 943 89 44 28

Basarri Sariko hainbat bertso

1

Zulo da Grana-erreka,
ez zelai ta ez ordeka (bis).
Ospelean gordeta,
bizi egin nahi eta.
Landare baten modura
atera zinen mundura.

2

Behin Zarautza etorrita
Azken Portu lehen zita (bis).
Xenpelar ta Txirrita...
kantuz dabil txirrika,
entzundako soka zaharrak
eten zizkizun amarrak.

3

Bertsoa eta euskara
kupeletatik plazara.
Ezer biziko bada,
esker biziko gara.
Mutil itsutik harago
itsu-mutil geroago.

340

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831527

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Ale honetako

laguntzaileak

Marisa Arruabarrena,
Garazi Eizmendi,
Asier Goia,
Iturraran parketxea,

Laguntzaileak

Eli Huegun
eta Iñaki Iturain

Diseinua

Karkara taldea

Banatzaileak

Narrea Etxeberria
eta Esti Uranga (Ori)

Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3100 ale

KARKARAK ez du bere gain
hartzen aldizkarian
adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.
KARKARAN argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik edo
zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.



XXIX. Basarri Bertso paper Sarian bigarren saria irabazi dute Esoainek eta Lizarazuk.

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Iker Gurrutxagarekin hitz egin (943 831 527) edo karkara@karkara.com Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Plastikozko ezinikusia

Plastiko beltzekoa da Hondarribiko –Gipuzkoa– Jaizkibel konpainia mis-toaren kontrako ezinikusia. Plastiko beltzekoa, iluna eta artifiziala. Iluna, emakumeen oinarrizko eskubide bat zapaltzen duelako eta era guztietako bortxakeriak erabili direlako horretarako, unean uneko agintarien eta politikarien babesarekin eta konplizitatearekin. Artifiziala, plastikoak ikustea galarazita ere, errealitateak hor jarraitzen duelako eta errealitatea gero eta indartsuagoa delako: Jaizkibelek gero eta babes handiagoa dauka, eta urtetik urtera gero eta konpainia handiagoa da. Artifiziala, gatazka gaiztotzen utzita herri bateko festa bat Euskal Herriko arazo bihurtu dutelako.

Plastiko beltzaz gain, izan da beste plastikorik. Jaizkibelekoek plastikoa eskuetan egin dituzte azken urteetako manifestazioak. Manifestazioak, ez baitira desfileak. Pankartari uko egitea erabaki dute. Desfilatzea bakarrik bada ere. Bada garaia alarde tradizionalen eta haren aldekoek ere plastiko kentzeko, bai eskuetatik, bai begietatik. ■ **Jakes Goikoetxea**. 2013ko irailaren 7an Berria egunkarian argitaratua

Gutunerako oharrak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAra bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Kontxako irudiak sarean

Donostiako estropadetan irudi pila bat jaso zituen Karkarak, baina guztiak ezin izaten dira papekora ekarri. Hala, KARKARAREN web-orrian, *Flickr*-eko kontuan eta *YouTube*ko kanalean dituzue ikusteko moduan. Gozatu!

Non ziren neskak?

Igande arratsaldean han ginen, Herriko Plazan, oriotar asko eta Orio zale mor-doa arraunlariek egindako denboraldi bikaina eta Kontxan egindakoa esker-tzeko eta txalotzeko asmoz.

Pozez betetako denboraldia eskaini dute aurten. Portatu dira.

Herri honetan arrauna bizi den era izugarria da. Horren adierazlea da beste kategorია eta modalitateetan ari den gazte andana. Zorionak denei.

Baina igandean, udaletxeko balkoian, nesken falta somatu nuen. Iruditzen zait izugarritzko lana egiten ari direla eta ez ditugula behar beste baloratzen. Horiek ere merezi dituzte herritarren beroa, esker ona eta zaleon txaloak.

Hemendik, zuei, neskak, nire txaloak eta besarkadak. Aupa zuek eta eutsi!

■ **P. Garzia.**

Banatzailen lan poltsa osatzen ari gara...



...interesa baduzu deitu 943 83 15 27ra
edo idatzi karkara@karkara.com helbidera



Aurrekoan Zarauzkoarekin batera antolatu bazen ere, oraingoan Orioko Ikastolak bakarrik antolatuko du Kilometroak festa. KARKARA

2014ko Kilometroak jaia antolatzeko lan-taldeak jardunean hastear daude

Martxoaren 8ko Karkaran eman genuen berria: datorren urteko Kilometroak festa Orioko Herri Ikastolak antolatuko du. Horretarako boluntarioen sarea osatzen ari dira ikastolakoak

Datorren urriaren 6an Tolosan ospatuko den jaiari hartuko du lekukoa Orioko Herri Ikastolak. Momentua ailegatuta, lekukoa hartzeko prest agertu dira ikastolakoak. Ikastolatik adierazi dutenez, *ohore handia da Orioko Herri Ikastolarentzat eta Orioko herriarentzat, berriz ere, duela 10 urte egin bezala, Gipuzkoako Ikastolen Kilometroak jaia Orion ospatu ahal izatea.*

Duela urte batzuk eskatu zuen Orioko ikastolak jaia antolatzeko aukera eta gogo biziz eta ilusioz heldu dio Ikastolak ikasturte berriarekin batera antolaketa lanei. Joseba Orella koordinatzaileak esan digunez, *ahalik eta herritarren partaidetzarik handiena bilatuz eta elkarlana eta auzolana sustatuz helduko dio Orioko Herri Ikastolak parez-parezabaldur zaion erronka berriari.* Izan ere 2004ko *Itsaso zahar, olatu berri* festan egin bezalaxe, ahalik eta herritar gehien laguntzarekin antolatu nahi dute datorren urtean ere Kilometroak jaia.

Aurkezpen bilerak

Irailaren 11n eta 12an aurkeztu zituzten datorren urteko Kilometroak lehenbiziko nondik norakoak, *jaia ezagutzeko eta ahalik eta herritar gehienek festarekin bat egiteko* asmoarekin. Jaiaren aurkezpen ekitaldia azaroaren amaiera aldean izango da.

Lan taldeak martxan

Behin festaren ezaugarriak eta lan taldeen egiteko nagusiak jendaurrean aurkeztuta, datorren astelehenetik, irailaren 16tik, aurrera jarriko dituzte lan taldeak martxan. Lan taldeak laster batean hasiko dira jo eta ke datorren ikasturtean aurrera eramango diren ekimenak nahiz 2014ko urriaren 5ean ospatuko den Kilometroak eguna diseinatu eta antolatzeko. Saio guztiak A -idazkaritza dagoe-na- eta B eraikinetako irakasle geletan egingo dituzte eta lan-talde batzuen lehen bilerak noiz izango diren ere jakitera eman dute:

- Irailaren 16an, astelehenarekin: 17:00etan ekonomia eta 19:00etan arropasalmenta.

- Irailaren 17an, asteartearrekin: 18:30ean ikuskizunak-kultura eta 20:00eta komunikazioa.

- Irailaren 18a, n asteazkenarekin: 18:30ean prebentzioa eta 20:00etan erronka.

- Irailaren 19an, ostegunarekin: 18:30ean txosnak eta 20:00etan muntaketa.

- Irailaren 23an, astelehenarekin: 18:30ean zirkuitua-segurtasuna-trafikoa.

- Irailaren 24an, asteartearrekin: 18:00etan osasuna eta 19:30ean inguru-mena-garbitasuna.

ZENBAKIA

10

Urte. dira Orioko eta Zarautz artean antolatu zen Kilometroak jaiaren eta datorren urtekoaren artean pasatako urteak. Edizio hark marka asko puskatu zituen jaiaren historian.

Plan Nagusi berria idazten hasteko lehenengo pausoa eman du udalak

Uztailaren 24an egindako udalbatzarrean onartuta, lehiaketara atera da Orioko hiri antolamendurako Plan Nagusiaren eta ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuaren idazketa-lana



2007tik gaur arte lan asko egin dira Orion, asko Plan Nagusiaren baitan. KARKARA

Irailaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ateratako iragarkian agertu dira lehiaketa horretan parte hartzeko oinarriak. Hala, Orioko Udalak 180.000 euroko aurrekontua –BEZA kanpo– jarri du Orioko hiri antolamendurako Plan Nagusiaren eta ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuaren idazketa-lana eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzeko.

Beñat Solaberrieta alkatearen hitzetan, *argi dago, aurreko legealdian zeuden arau subsidiarioek, eta, ondoren Plan Nagusiak, gora beherak izan dituztela. Alde batetik, ongi tramitatu gabe egin zelako, baina, batez ere, herritarren parte hartze erreala bermatu ez zelako. Horrek eragin oso negatiboa eta nahasmena ekarri du herrian, eta egindakoarekin ados ez zegoen jende asko agertu da.*

Planeamendu batek, Orioko herria hemendik 10-15 urtera nolakoa izatea nahi den definitzen du, eta gauegun –alkateak esan duenez, krisia dela eta–, denbora horiek luzatu egin dira, 20-30 urtera; batez ere eraikuntzen sektorea jaitsi egin delako. *Beraz egoera honetan, egokiena, pentsatu eta Orio bera aztertzea dela egokiena iruditzen zaigu hiri-gintza ikuspegitik. Herritarrak eseri eta nolakoa izatea nahi dugun pentsatu eta denon artean diseinatzea, esan digu Solaberrietak.*

Bi urte baino lehen aurkeztu beharko du proiektua enpresa irabazleak. *Orain arte egindako akats urbanistiko eta administratiboak berriz ez gertatzeko prozesua ireki alde batetik, eta beste garai batzuetan eginiko planteamenduak aztertu eta berridaztea da helburua, bukatu du Orioko alkateak.*

LABUR

Ingurumena

Gaika birziklitzeko gune berriak
Abuztuaren 8az geroztik, zazpi gaikako birziklapen gune gehiago ditugu Orion. Izan ere, launa edukiontzi berri –papera eta kartoia jasotzeko urdina, ontzi arinak biltzeko horia, bio-hondakinarentzako marroia eta errefusa botatzeko grisa– jarri ditu Udalak Herriko Plazan eta herriko sei jolas-parkeetan. Orain artean zeuden plastikozkoak eta metalezkoak kendu egingo dituzte, gainera.

Udaleko kontuak

Balioanitzeko langile bila

Orioko udalak, hutsik geratu den lehen mailako ofizial balioanitzeko lanpostua betetzeko deialdia egin du. Interesatuta dagoen edonork eskaera orria aurkeztu dezake Orioko Udalean. Informazio guztia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Orioko Udalaren web-orrialdean zintzilikatuta daude: oinarriak, baldintzak eta prozesuaren zehaztasunak. Oraindik informazio guztia zehazteko badago ere, datozen egunetan argibide gehiago emango ditugu www.karkara.com web-orrian.

Kultura

Bertsok Arraun Elkartaren alde

Diru-iturri berriak lortzeko garaiotan, hainbat ekimen antolatzen ari da Orio Arraunketa Elkartea 2013an, tartean, irailaren 13ko bertso jaialdia. Sei bertsolari izango dira Unai Manterola gai-jartzailearen esanetara: Sustrai Colina, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Xabi Paya. Saioa, ostiralarekin, gaueko 22:30ean, Karela kiroldegian izango da eta sarrerak 10 euro balioko du. OAEK bi laguntzako sarrerak eman dizkio KARKARARI, eta, gure laguntzaileen artean Arantxa Egibarrri egokitu zaizkio.

Bi proiektu ari da egiten Aranzadi Oriako arroan

Batetik Saria inguruko ibarra berreskuratzeko lanetan ari dira, eta, bestetik, hainbat txori eraztunekin markatu dituzte Motondo inguruan. Lehenengoan Aldundia du lagun eta bestean Jauriaritza

Uztailen eman genuen *Karkara.com* web-orrian Saria inguruko proiektuaren berri. Abuztuaren bukaeran hasi dituzte bertako ibarra berreskuratzeko lanak Aranzadik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak elkarrekin.

Estuarioaren eragina berreskuratzea du helburu. Hau da, eremua mareen eraginpean uzteko, ura sar dadin errazteko eta, horri esker, zenbait habitaten azalera zabaltzeko. Lanetan eremua ibaitik bereizten duten hormak kendu, drainatze kanalak egokitu, makaldia kendu eta zenbait eremutako kotak beheratu beharko dituzte.

Horrez gainera, Motondon eta Txingudiko badia inguruan txoriak eraztunekin markatu dituzte. Hala, markatutako txori bakoitzak nortasun agiri moduko bat izango du. Eusko Jauriaritzak eta Aranzadik aurrera eramandako proiektu horren helburua txorien ohiturakezagutzea da. Horrez gainera, kardantxiloaren, hegatzabal arruntaren eta tarinaren migrazio joerak aztertu dituzte.

ZENBAKIA

2.000

Txori. Kopuru hori da eraztunarekin markatu dituztenaren gutxi gorabeherakoa. Hala, eraztunetz markatzen dituztenen *Euring-ek* -Europako markatzaileen sareak- ezarritako kalitateko estandarrak beteko dituzten markatzaile berriak formatzea ere badu helburuen artean kanpaina horrek.



Makinekin zeuden zuhaitz asko kendu eta kotak aldatu dituzte Saria inguruan. HERRIO NATUR TALDEA



Domina zintzilik zutela bukatu zuten *bizkorrek* Europako Txapelketako ibilbidea. ORIOKO BATE BIZKORRAK

Europako hirugarren taldea da OBB

Nabarmentzekoa da Orioko Bate Bizkorrek taldeak egin duen urtea. Ligan azken jardunaldira arte jardun ziren irabazteko borrokan eta Bulgarian bikain errematatu dute denboraldi guztiko lana

Brontzeko domina ekarri du Orioko Bate Bizkorrek sofbol taldeak Bulgarian, abuztuaren 19tik 24ra, jokatu den Europako Txapelketatik. Horrez gain, bateazaille onenaren saria ere lortu du Orioko taldeak, Olatz Zubia jokalaria donostiarri eman baitiote. Emaitza aparta lortu dute, beraz.

Egunean bi partidu jokatu zituzten oriotarrek dominarako borrokara iritsi aurretik. Lehen egunean bi partidetakoa bat *London Angels*-en kontrakoa, 7 eta 1- galdu zuten OBBko jokalariek; baina aurretik Frantziako *Les Comanches*-en aurka irabazi zuten 3-0.

Bigarren jardunaldian Kroaziako *Princ* eta etxeko, Bulgariako, *Akademiks* taldeak hartu zituen mendean talde

oriotarrak. Bi partida horietan, gainera, alde nabarmenarekin nagusitu ziren *bizkorrek*; 3-14 eta 0-9 hurrenez hurren.

Gainerako egunetako norgehiagokak ere irabazi egin zituzten Errumaniako *Angels*-en -10 eta 3-, Greziako *Faros*-en -2 eta 9-, Suitzako *Eagles*-en -7 eta 5- eta Poloniako *Szostka Brezg*-en -3 eta 14- aurka. Hala, multzoko lehenak izanda pasa ziren bigarren fasera *London Angels*-ekin berdinduta.

Finalean sartzeko txartelaren bila aritu baziren ere, aurkari oso gogorrak izan zituzten parez pare eta bi aukera izan arren, ez zuten azken partida jokatzeko modurik egin. Lehenengo abagunea *London Angels*-en kontra izan zuten. Partida 1-0 irabazten izan ziren denbora

luzez oriotarrak, baina azken unean berdindu eta bukaeran markagailua irauli zuten Ingalaterrako taldeak. Biharamunean Luzernako *Eagles* taldearen aurkako lehian ezin izan zuten irabazi, eta, ondorioz finaletik kanpo geratu zen Orioko Bate Bizkorrek. Suitzarren jaurtitzaile amerikarrak buruhauste handiak eman zizkion Oriori.

Dena dela, oso pozik bueltatu dira Euskal Herrira. Eman zuten mailarekin eta emaitzarekin oso gustura geratu dira oriotarrak, *London Angels*-ek irabazitako txapelketan.

Bidaia ederra

Ez da Orioko Bate Bizkorrek Europako txapelketara joaten den lehen aldia, baina bidaia guztiak izaten dira bereziak.

Hegazkinez joan ziren Bulgariara eta joaneokan arazorik izan ez bazuten ere, itzulerako hegaldian 5 ordu galdu zituzten oriotarrek.



Izan ere, Erromako aireportuan zirela, diplomatiko japoniar batzuk tarteko, hegazkinaren zain bueltaka egon behar izan zuen Orioko taldeak.

Dena dela, Elena Etxeberriak kontatu digunez, Bulgariako zaletu asko eta asko OBBren alde oihuka izan zen txapelketak iraun zuen egunetan. *Aurreko puntan ibili ziren talde gehienek atzerritarrek zituzten beren taldean: amerikarrak, kanadiarrak eta australiarrak. Gu berriz etxeko jokalariz hornitutako talde bakarra ginen eta horrek gurekiko begirunea piztu zien bulgariarrei, kontatu digu Etxeberriak.*

Baina, horrez gainera, hangoek talde alaia eta irribarretsua zirela esaten zietenala esan digute OBBkoek. *Ez dakit bulgariarrak serioagoak-edo direlako, baina gurepoztasunak harrituta geratzen ziren bertako herritarrek. Egunero kantuan-eta aritzen ginen, eta, agian, horrek harri-dura sortzen zien hangoei, gaineratu du OBBko jokalariek.*

Garatzeko bidean dagoen herria
Bulgarian pasa dituzten egunetan berta-

ko jendeaz eta kulturaz ere ikasi dute sofbolean jokatzeko gainera OBBko taldeki-deek.

Halako bidaietan janariari asko erreparatzen diogu orokorrean euskaldunok eta sofbol taldekoak antzeko ibili dira: *beti gauza bera jaten genuen; oilaskoa, pepinoa, tomatea eta feta gazta. Ez genuen bestelakorik probatzeko aukerarik izan, adierazi du Etxeberriak.*

Erromako aireportuan zirela, diplomatiko japoniar batzuk tarteko, hegazkinaren zain bueltaka egon behar izan zuen Orioko taldeak

Bulgariarrek gureei hala esanda, 300 eta 400 euro bitartean irabazten dute hileko eta herritarren arteko diferentziak handiak omen dira: oso aberatsak edo oso pobreak dira orokorrean. *Atentzioa deitu didana zera da; herritarrek autotan uhalik jantzi gabe eta motorretan kasikorik gabe ibiltzen direla oraindik. Horrez gainera, batzuk gurdia dute beren ibilgailua, bukatu du Elena Etxeberriak.*

LABUR

Eskubaloia

Jon Azkue laugarren European

Abuztuan Hungarian jokatu du juniorren Europako Txapelketa Jon Azkue oriotarrak Espainiako selekzioarekin. Dominen borrokan izan dira espainiarrak eta brontzekoa lortzeko norgehiagokan Alemaniaren aurka galdu zuten. Dena dela, Azkueren bakarkako lan ona nabarmendu zuten antolatzaileek itxiera ekitaldian aipamen berezia emanaz. Irailaren 14an hasiko du ASOBAL ligako bere lehendabiziko urtea Bidasoa Irun taldearekin Logroñon, Naturhouse La Rioja -liga irabazteko faboritoetako bat-taldearen aurka.

Giza-proba

Heldu Gipuzkoako Txapeldun

Joan den abuztuaren 4an denboraldi bukaera aparta eman zion Helduko mutilen giza-proba taldeak Aian. Gipuzkoako txapelketa zen jokoan eta guztien gainetik ibili zen Orioko taldea. Txapelketa gogorra espero zuten oriotarrek eta, hortaz, gogor prestatu ziren. Aiakoa, gainera, ezustekoa ere eman zuten hainbat plaza korrika eginda. Datorren urtera arte, erakustaldiak baino ez dituzte izango Heldukoek.

Arrauna

Deialdia gaztetxoentzat

Traineru denboraldia bukatzean den honetan, gazteenekin martxan hastekotan dira Orio Arraunketa Elkartekoak. Hori dela eta, hainbat bilera antolatu dituzte. Irailaren 16an izango da lehena, kadeteek zuzendua. Irailaren 17an infantilekin egingo dute, 18an alebinekin eta 19an jubenelekin. Saio guztiak Arraunetxan egingo dituzte eta arratsaldeko 18:00etan izango dira. Bestalde, Udalak Arraunetxeko aisialdi zerbitzuaren lehiaketa publikoa ireki zuen pasa den abuztuan 19an. Orioko Udaletik esan dutenez, beren nahia edozein herritarrek arrauna edo piraguismoa egiteko aukera irekitzea da. Hala, kirol horiek edozeinek egiteko aukera ireki da: arrauna edota piraguismoa gertutik ezagutu nahi dituztenak, txalupa propioa dutenak, txalupa uretatik gertu izan nahi dutenak edo taldean kirol hau egitera animatzen direnak, besteak beste. Irailaren erdira arte izango du edozein elkarte edo enpresak, zerbitzu hau kudeatzeko lehiaketara aurkezteko aukera, horretarako Udalak onartu dituen plegu baldintzak betez gero. Baldintzak Udalaren web orrialdean ikusi daitezke.



Alexandra Gomez eta Ramon Yeregi aritzen dira erlezain lanetan Iturraranen. KARKARA ETA RAMON YEREGIK UTZIAK



“Erleen pozoia sustantzia osasungarria da hainbat gaitz sendatzeko”

Ramon Yeregi Otxotorena

Erlezaina

Iturraran Parketxetik gertu bada erlategi bat eta bisita gidatuak egiten dituzte hara erlauntzen egitura, antolaketa eta erleen bizimodua ikusi ahal izateko. Horretarako erlezainak urtean 8-10 aldiz joaten dira erleak bisitetarako osasuntsu edukitzeko.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Remon Yeregi hernaniarra bada ere, bere osaba Aiako medikua izan zen garai batean eta berak ere Orion pasa izan ditu makina bat uda. Altxerri baserrian izan zuen erleekin bere lehenengotariko kontaktua umetan eta orain, erlezain gisa, Alexandra Gomezekin batera Iturraran Parketxe aldameneko erlauntzak maneiatzera etortzen denean, besteak beste orduko garaiak gogoratzen ditu. Gurekin, ordea, erlezaintza izan du hizpide nagusia.

Zein da erlezain baten lana?

Izenak berak dion bezala erleak zaintzea. Erleak bere burua oso ondo zaintzen du, baina globalizazioarengatik badituzte gaitz batzuk eta horiek zaindu egin behar dira. Argizariak ere berri behar izaten ditugu gaitz gutxiago sortzeko. Udazkenean erlezain guztiok erleak tratatu behar ditugu badagoelako *barroa* izeneko akaro bat, Asiatik etorrria, erlearen gainean bizi dena eta erlauntzetan asko hedatzen dena erleak hil arte. Bestalde, aurtun eguraldi txarra izan dugu udaberrian eta erlezain askori

erle batzuk akabatu egin zaizkie. Guk lau erlauntza galdu ditugu, baina badaude 20ra arte galdu dituztenak. Horrelakoak ez gertatzeko gainean egon behar izaten da. Gu are gehiago, izan ere, badira zaleztasun gisa dutenak, baina gu profesionalki aritzen gara.

Nola hasi zinen honetan?

Nire anaiak lehen pausoak erakutsita. Altxerri baserrian baziren hiru erlauntza eta umetan bakarren bat hutsa zegoela eta saltsan ibiltzen hasi ginen. Anaiak hasi zenean sortu zitzaidan honetan profesional gisa aritzeko gogo. Lehen iturgina nintzen eta nahiko nazkatuta, estresatuta... erabaki nuen hura utzi, ikasi, gero eta erlauntz gehiago jarri eta honetatik bizitzea. Bizitzeko juxtu-juxtu ematen du, baina gustuko izanez gero...

Iturraranen duzu erlategia?

Iturrarangoa prestatua dago jendeari barrutik erakusteko. Bisitaria txabolan babesean egoten da, ez du jantzi berezirik behar, eta bertako langileek irekitzen dituzte erlauntzak ikusteko.

Guk erleak zaintzen ditugu osasuntsu izan eta ondo lan egin dezaten turistei, eskola umeei eta abarrei erakusteko. Hainbeste ireki eta erakustea gehiegizkoa da erlauntzetan eta erlezain gisa ahalik eta gutxien irekitzen ditugu, produkzioa hobea baita erleak gutxiago estresatuz gero. Baina Iturrarangoak ikusteko daude eta ez dute hainbeste ezirik egiten.

Hemengo erleez gain, nik nire erlaun-

tzak dauzkat eta Gipuzkoako Erlezainen Elkartearentzat ere egiten dut lan erlezaintzan sartu nahi dutenei irakasten.

Zein prozesu egiten duzue erlezainok? Maneiatzeko modu erabat ezberdinak dira orain dela 50 urtekoak eta oraingorak. Bada orduko eran lan egiten duenik, baina gero eta erlezain gehiagok biologikoki erlea hobeto ezagutzen dugu eta erlearen gaitasun guztiak aprobeztatzen ditugu. Basoak eta mendiak osasungarri eta emankorrek badira genetikoki onak den erle batek ekoizpen ona izaten du eta biak orekatu behar dira horretarako.

Erleen kanpaina udazkenean hasten da, aurreko eztiak kendu ondoren. Nahiko bazka utzi behar da erleek negua ongi pasatzeko eta udaberriari ongi hasteko. Abiada ona bada, erle populazio onarekin, hurrengo urteko ekoizpena ona izango da. Neguan geldialdia izaten da. Udaberriak aurrera, ekainera bitartean, landareak daudenez eta bazka sartzen dutenez populazioa hazten da eta horrela produktio ona emateko aukera dago.

Zuek zer egiten duzue zaintzeko?

Eguraldiaren eta erlea nola indartzen denaren arabera, argizariak berritzen ditugu berentzat osasungarria delako. Erleek hedatzeko duten sistema guk ere erabiltzen dugu erlekumeak egiteko. Beren atzetik aritu beharrean laukiak, erlauntzak eta erreginak maneatuz kumatzten ditugu eta erle eta erlauntza kopurua handitzen dugu.

Erleek ziztadak eta eztiak gogorarazten dizkigute, baina besterik ere badute.

Ezagunena eztiak da osasungarria delako eta azken urteotan propoleoa eta erregina-jelea ere ezagun egin dira. Gero eta ikerketa gehiago egin dituzte eta ikusten da oso osasuntsua dela guretzat. Apitoxina, pozoia, ere oso ona da gaitzak sendatzeko, batez ere erreuma dutentzat. Badira gaitz larrien sintomak apitoxinak arintzen dituenak.

Erlezainen lana arriskutsua al da?

Arriskutsua da alergia edukiz gero, bestela osasungarria. Mendiari egiten dugula lan, gustuko gauza batean, ziztadak jasotzen ditugunean erre egiten du, baina nik nire buruan nahita jarri izan ditut gorputzean ziatikako minak arintzeko. Pozoia sustantzia osasungarria da.

Ingurumenean ere badu eragina, ezta?

Askok handiagoa da erleek ingurumenean uzten duten onura guk erlezain bezala jasotzen duguna baino. Nahiz eta guk eztiak, propoleoa... bildu, ez dugu %20a ere biltzen kanpoan uzten dutenarekin konparatuta. Adibidez, eguzki-loreak landatzen diren toki batean erleak badaude %20-30 gehiago ekoizten

dute erlerik ez badago baino.

Pagoetan baso eta mendiak gehiago ematen badu, bertan bizi diren animaliek ere gehiago jasoko dute. Polinizazioarekin ere garraio genetikoa egiten dute, beraz, berriz sortzen diren landareak genetikoki aberatsagoak dira eta orain dauden gaitz asko –globalizazioak ekarritakoak– saihesteko gai direnak bizi-rik gelditzen dira eta gero erleak gai dira gene horiek banatzeko.

“Askok handiagoa da erleek ingurumenean uzten duten onura guk erlezain bezala jasotzen duguna baino”

“Erlauntzak hainbeste ireki eta erakustea gehiegizkoa da erleentzat. Guk ahalik eta gutxien irekitzen ditugu, produktioa hobea baita erleak gutxiago estresatuz gero”

Azken aldian hainbeste zeresan sortu duen liztor asiaticoa zergatik da hain kaltegarria?

Euskal Herrian badago liztor handi bat erleak jaten dituenak, baina ez ditu larritzeko beste jaten eta horien kabiak ere txikiagoak dira. Beti hemengo erleekin, elkarrekin, bizi izan dira, beraz, ez dira erleentzat arazo izan. Akaso erlauntza txiki batean kalte egin dezake, baina gehienei ez.

Asiako liztorrak, ordea, kabi handi-agoak egiten ditu eta erlauntz sarreran gelditzen dira zain liztor asko. Estresarekin erleek lan egiteari uzten diote, ondorioz, biltegirik ez, bazkarik ez, ahuldu eta hil egiten dira. Horren kontra, udaberriari, tranpa batzuk jartzen ditugu: plastikozko botilak sirope, ardo zuria eta garagardoarekin. Horrela erreginak biltzen ditugu, bakoitzak bere habia hazten baitu. Langileak lanean hazten direnean zaila izaten da habiak bilatzea.

Iturrarenen ezirik egiten al duzue?

Bertako erlauntzak erakusteko erabiltzen dira, baina badira Gipuzkoako Erlezainen Elkartearen hiru erlauntza eta horietan egiten da; baita erlekumeak ere, bertako genetikak lantzeko.

Eztia egiteko txukun aritu behar da: zentrifugatu egiten ditugu laukiak eta eztiak ondua egon behar izaten da biltzeko, bestela ozpinu egiten baita; gero txukun bildu eta ontziratu egiten dugu. Lan handia da. Jendeak jakingo balu zein lan ematen duen ezti kilo bat ontziratzeak azoketan saltzen dugun eztiaren prezioa merkea da.

LABUR

Lanak

Kirola egiteko azpiegitura berria
Maria Aurizenea pasealeku inguruan –Azkuete Txiki eraikinaren alboan pasatzen ari den– erleentzat laster Aiako kirol ibilbide berria. Abuztuaren 1ean egin zuten plenoan egitasmoa onartu eta obra esleitzeke baldintza administratibo eta teknikoak onartuta proiektua martxan jarri zuen Aiako Udalak. Igor Iturain alkateak esan zuenez, gainera, hil honetan bertan hasi nahi dituzte lanak, hala, urtea bukatzerako –hasiera batean azarorako aurreikusitako– zirkuitua erabiltzeko moduan izan dezaten herritarrek. Hala, herritarrek oinez edota korrika ibiltzeko kilometro inguruko ibilbidea ia laua izango dute herrigunetik atera gabe. Proiektua 2009tik dago Aiako Udalaren jiran eta 349.378,60 euro kostako da kirol zerbitzu berria egitea; 155.000 euroko diru-laguntza eman du proiektua gauzatzeko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzatik eta Udal aurrekontuetatik finantzatu da gainerakoa. Gauzak horrela, herriko kirol instalazioen osagarri izango da egingo duten eremu berri hori.

Mendia

Ernio erromeriak

Dagoeneko hasita daude irailero Ernio egiten diren igandeko erromeriak. Aurten, irailak bost igande izango dituzte, beste horrenbeste erromeria izango dira Zelatunen eta inguruko zelaietan. Festa egun handia, berriz, irailaren 29an, San Migel egunez izango da. Jende asko ibiltzen den egunak izaten direnez, mendian tentuz ibiltzeko eskatu dute erniozaleek, hala mendizaleen artean istripurik gertatu ez dadin.

Justizia

Zuloaga beste 4 urtez epaile

Abuztuaren 1ean, Aiako Udalak egin zuten plenoan, bake epailea eta ordezkaria izendatu ziren aho batez. Lau urtez behin aukeratu behar izaten dira eta deialdi honetan bi lagun agertu dira lan hori betetzeko prest. Beraz, Bixente Zuloaga izango da datozen lau urteotan epaile titularra berriz ere Rita Portularrume izango du ordezkaria. Pleno berean, Baint eremuan 700 metro koadro inguruko pabiloi bat altxatzeko aukera bermatzea ere adostu zuten Bilduko eta EAJko ordezkariak. Hala, enpresak bere beharrak asetu ahal izango ditu.

Irlandako esperientzia

Aze poza atzerrira beka bat lortu nuela esan zidatenean! Abuztuko lehenengo hiru asteetan Irlandara joateko aukera nuen. Ene! Nire herriko festak eta gure pilota txapelketako partidak! Denbora batez pentsatzen jarri eta *berriz ere izango ditun, bai festak eta baita pilota partidak, beraz aurrera!* esan nion neure buruari. Kezka apur bat ematen zidan, bai niri eta baita gurasoei ere, baina azkenean baiezkoa eman nuen.

Uztailaren 30a iritsi zen, Irlandara joateko egun hura. Oso urduri nengoen, ez bainuen inor ezagutzen. Beldur pixka bat ere ematen zidan hango bizimoduak, ordutegiak, janariak eta baita ere kezkatzen ninduen ze familiarekin to-

patuko nintzen. Baina bidaia izugarri hau amaitutakoan, konturatu nintzen aldaketa horiek merezi izan dutela esperientzia ahaztezin hau igarotzeko. Tokatu zitzaidan familia oso jatorra zen, atsegina eta eskuzabala. Hasieran, esan zidatenean bost ume zituen familia batera joan behar nuela, pentsatu nuen: *Aze desmadrea!* Bertara iritsi nintzenean, ez nuen horrelakorik aurkitu eta berekin oso harreman ona izan nuen.

Ingelesa gehienbat familiako umeekin praktikatu nuen, nahiz eta berek oso azkar hitz egiten zuten, denborarekin ohitzen joan nintzen. Astelehenetik ostiralera 09:30etik 12:30ak arte ingeles eskolak izan nituen eta arratsaldean, hainbat ekintza. Etxera bostak inguruan heltzen nintzen eta segituan afaltzen

nuen. *Azer arraroa! Aian ordu honetan meriendatzen egongo dira-eta!* Iluntzero nire Euskal Herriko lagunekin geratzen nintzen. Oso talde jatorra elkartu ginen eta berekin igarotako hiru aste horiek ahaztezinak izango zaizkit. Orain ere, elkarrekin harremanetan jarraitzen dugu eta guk esaten dugun bezala *kedada* apartak antolatzen ditugu. Larunbatean, berriz, egun osoko ekintzak prestatzen zizkiguten begiraleek. Igandeak familia giroan igarotzen genituen.

Abuztuaren 20a iritsi zen, etxera itzultzeko egun hura. *Aze pena! Esperientzia ahaztezin hau bukatu da eta!* Eskerrak eman nahi dizkiet Irlandako familia jatorrari, 28 neska-mutil euskaldunei eta begiraleei, zuek gabe bidaia hau ez zelako hain berezia izango.



Txokoak eta jendea Udalekuen amaiera

Saltsa ugari izaten da udan; horietako bat udalekuak. Aurten 85 ume hartu du parte eta denetarik egin dute: eskulanak, jolasak, San Ferminetako txupinazoa, mendi irteerak, igerilekuan edo errekan bainuak... dena giro onean eta gustura. Mozorroto eta hamaiketako ere egin zituzten amaieran. Datorren urtera arte, orain eskolara!



CAYETANO ERE ORIOREN ALDE?

Aurpegi eta jende berezi asko ikusten da Kontxako estropaden aitzakian irailako lehenengo bi igandeetan Donostiako portuan

Kolore horidunak asko, eta batzuk espero ez zirenak gainera. Zeinek esango zuen zaldi gainetik jaitsi eta Cayetano Martinez de Irujo Arjonako duke eta Salvatierrako kondeak Donostiako arrauplara salto egingo zuenik?

Ez da ez arraunean hasi, baina estropadek aspalditik erakarri omen dute Albako dukesa-

ren semea eta egutegian markatutako data izaten da beretzat Kontxako estropadena. Norbait ausartu zen Orioko kamiseta janztera eta Orio Arraunketa Elkarteko presidente Ibon Huegun ere aurkeztu zioten berari.

Ez dakigu aurten noren alde egin duen apustu, baina jakin duguna da orain dela 20 urteko Orioko kamiseta bat duela gordeta etxean. Cayetano ere Orioren alde?

[INFOR.: IBON HUEGUN]

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutizlak

Eusko Gudari, 5 Tel. 943 24 87 74 Orio

Katu Horia

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIAGAIAK
608 67 64 87

azkue karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

Tel/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com



Bigarren mailatik dagokion tokira bueltan



Arraun denboraldia bere azkenak ematen ari da 2013an. Kontxako estropadetan izan da Orio bi urtetako etenaren ostean. Baina **Orio hori baino gehiago dela argi geratu zen** Donostiako moilan. Hori kolorea nagusi izan zen eta gizonetzkoen zortzitik sei trainerutan oriotarrak izan ziren lanean.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: KARKARA TALDEA

Igandea, 08:50, arrantzaleak etxera bueltan eta ezuriak beren lanaketen di-tuelako Kontxako estropadako palen mugimenduak erakarrita baizik.

Arrantzaleak etxera eta 08:55ean arraunlariak babeslektatik atera eta itsaso zabalera bideratuko dituen Kontxako badiara bidean, autobusean.

Bitartean kamiseta, jertse, txapel, bandera, zira, aterki... horiak hartuta, Orioko traineru eta arraunlarien zaleak trenera, autobusera edo autoetara bidean, Donostian kolore horia zabaltzeko asmoz herritik abiatuta lehen pausoak emanaz. Oriotarrak ez dira bakarrak, ordea. Tren

geltokira lehen bagoia iritsi orduko, kolore gorriak hartua du tokia; baita trenetik jaitsitakoan ere. Zumaiarrak Hibaikakoekin batera danbor eta bestelako soinu z marea gorria sortu dute Donostiako kaira bidean.

Portura iristerako, baina, kolore horia gero eta gehiago ikusten da. Agian estropadak ikusteko tokirik onentsuena lortzeko aurreratu dira batzuk. Kolore hori horrek eguzkiari deituta-edo, euriak aguresan eta lainoak pixkanaka zulatzen hasi dira, ikusleen onurarako. Horrek oriotarren arteko giroa ere indartu du. Gero eta gehiago dira, arraunlariak, Pa-sealeku Berritik Aquariumera, eta handik arranplarako bidea egin ahala oriotarren alde entzuten diren animo oihuak.

Zumaiarrak nesketan onenak

Giroa berotuz, baita neska arraunlariak ere. Izan ere, haiek dira lehenengoak. Oriotarrak kanpora gelditu ziren sailkapen estropadan, baina oraingoan gertutik jarraituko dituzte hurrengo denboraldira begira zertan hobetu dezaketan ikusteko. Arraunlariak ez ezik hainbat oriotarrek arranplan segitzen zuten, azkeneraino Orioko trainerua babestuz.

Urduritasuna aurpegi gorrietan, bai zaleenetan baita arraunlarienetan ere. Urduritasuna bai, baina baita indarra ere. Orain arte Kontxako bost banderak irabazi dituzten Galiziako arraunlariak zumaiarrek hartu diete lekukoa, berak izan baitira irabazle Hibaikari ia 20 segundoko alde ateraz.

Atera, uretatik irten direnean, bati baino gehiagori atera zaizkion malkoak lagunak eta senideak besarkatu eta herriarren zorion kantuak entzundakoan.

Gorritz jantzitako arranplan tokia egin ez oriotarrak ere uretaratu dira lehen txandakoak lanean hasteko gutxi falta zutenean. Haiek gutxi behar eta Orioko zaleek asko. Asko portuan eta inguruetan estropada ahalik eta ondoen ikusteko behar duten lekua hartuta. Asko ikusten dira irratiak, sakelako telefonoak eta bestelakoak esku artean eta entzungailuak belarrietan dituztela zuzeneko emankizunak ikusi eta entzuten.

Eguraldi iragarpenak ez ziren oso onak, baina badirudi azkenean ez duela eraginik izango arraunlariengan, edo hala diote behintzat adituek.

Lehenengo txandakoak abiatu dira eta jendea adi dago, nahiz eta oriotar gehienak beren trainerua noiz hasiko zain dauden. Portugalete doa aurretik baina azken aldera hustu eta Tiranek azken txanpa itzela egin du Portugaleteri aurrea hartuz. Arranplara iristerakoan ia inor ez da gogoratu lehen txandako gehienekin, beren gertukoak izan ezik. Denak ohorezko txanda buruan. Zaleek, apustulariek -*Portaletas* inguruan asko ibili arren, gutxik asmatuko zuen emaitza- eta, noski, arraunlariek.

Arranplako liskarra

Lehen igandetik Urdaibaik Hondarribiaren hiru segundoko abantaila du eta seikoa Oriorekiko; Kaiku pixka bat atzerago, hamahirura, ligan lehena izan arren. Nahiko parekatua joan da estropada eta helmugan Urdaibaik izan da lehenengo, Orio bigarren eta Hondarribia hirugarren. Tarteak, berriz, oso txikiak. Bi segundoren barruan hirurak.

Arranpla urdinez jantzi da Bermeotarrei ongiatorria egiteko, baina berehala entzun dira zurrumurruak. Ustez arraun talka egon da eta Hondarribiak helegitea aurkeztu du Urdaibairi bandera eman ez diezaioten.

Arraunlariak oihuka eta zaleak are gehiago. Bermeotarrak joan den igandeko irrintziak aldatu eta Hondarribiarrei iseka. Haiek ere ez dira isilik geratu. Batzuen eta besteen aldeko eta aurkako oihu urdin eta berdeak, eta, tartean, baita horiak ere; horiek Hondarribikoan alde -besteak beste, Urdaibai kanporatuz gero Oriorentzat da ohorezko txanda-.

Liskarrak jarraitzen du arranplan eta luze joko duela dirudi. Bien bitartean oriotarrak kanpora eta txaloz, muxuz eta besarkadaz hartu dituzte oriotarrek, beren animoek zertxobaiterako balio izan duten ustean.



ORIOARRAK KANPOKO TOSTETAN

Orio eta arrauna biak bat, baina ez Orion bakarrik, herritik kanpora, beste traineruetan, dauden oriotarrak ere horren erakusle dira. Ligan, Orioz gain, aurrean dauden hiru talderen entrenatzaileak oriotarrak dira: Korta, Salsamendi eta Orbañanos. Mikelekin batera Kontxa irabazi dute Asier eta Gorka Puertas anaiek, Kortak eskura du San Miguel liga eta Jon Salsamendik ere maila ona erakutsi du bietan.

Kontxako gertaerek, ordea, sortu dute talkarik beren artean. Izan ere, Kontxa polemikak hartuta Hondarribia eta Urdaibai daude eztabaidaren bi aldeetan eta epaileak tartean. Bi entrenatzaileen jarrera ona izan zen tentsio une horietan. Ez da erraza halako egoera batean kirioak baretuta mantentzea. Azkenean, epaileen erabakia: Urdaibai kaleratua eta bandera, Hondarribira.

Arraun ibilbidea bukatzeko modu ezin hobea da edozein arraunlari-entzatat Kontxa irabaztea eta hala izan da Puertas anaientzat, biek utziko baitute arrauna. Zaharrenak, Asierrek, bost kontxako bandera irabazita. Gazteenak, Gorkak, hiru. Horrez gainera, bestelako garaipenekin sekulako palmaresa dute biek hala biek.

Bestalde, Kortaren traineruak, ligan ez bezala, Kontxan ez zuen mailarik onena erakutsi, ohorezko txandan 17 segundo atzerago iritsi baitzen.

Beste oriotarrik ere izan zen Kontxako lehenengo txandan. *Aizperro* bi anaiak, Urko Redondo eta Jon Iriondo - Orion bizi den ondarrutarra - Portugaleten, eta, Aitor Olaskoaga *Aizperro* oren esanetan, ez zuten sorpresaz hartu emaitza - Urdaibai kanporatuta laugarren -, itzulerakoa norabidearekin asmatu ez arren.

San Pedrok ere baditu arraunlari oriotarrak: Igor Agirregomezkorta eta Mikel Arostegi eta horiek Kontxan bigarren jardunaldian Tiran aurreratu zuten sailkapen orokorrean.

Orio eta arrauna, etxean zein kanpoan, herriak emandakoa erakusten aritzen dira oriotarrak.

Ia hiru ordulaurden igaro dira eta emaitza eman dute: Urdaibai kanpora eta Hondarribiara bandera.

Hondarribiarrak bandera astintzera eta Urdaibaiko arraunlariren bat *Ciudad de San Sebastian* itsasontziko eskailere-tangora beren amorrua azalduz. Jon Salsamendi entrenatzailea, berriz, guztiak lasaituz. Amorrua itsasotik kanpora ere iritsi da, arranplan borroka ere egon da ingurukoek saihestu duten arte. Urdai-baikoek trainerua atera orduko, beren jarraitzaileen eta arraunlarien aurpegi muturtu eta malkoekin alde egin dute.

Hondarribikoak, aldiz, zain gelditu dira eta oriotarrak berekin batera irabazleei txalotzeko.

Eskerrak balkoitik

Bigarren igandeko irabazlea Orio izan da, eta, hori ospatu beharra dagoenez, Satxota sagardotegira joan dira bazkal-tzera arraunlariak eta zuzendaritzako kideak. Beren buruei saritu diete denboraldi osoan egindako lana, baina atzetik badute jarraitzaile koadrila, oriotarrena, eta horiek eskertzeko udaletzeko balkoi-ara atera dira musikaz lagunduta. Baina traineruetako tostetan aritutako guztiak ez ziren bertan: neskak eta bigarren ontzikoak falta ziren.

Herritarrek txaloz hartu dituzte eta festak ordu txikiak arte jarraitu du, nahiz eta arranplan bezalaxe dena ez den festa giroan bukatu batzuentzat.

San Miguel Ligaren azkena Bermeon

Kontxakoa bai, bukatu da, nahiz eta oraindik luze joko duen aurtengoaren inguruko eztabaidak. Arraun denboraldia, orde, ez da amaitu. Bermeon jokatuko da larunbatean estropada eta Portugaleten igandean.

Ligako sailkapenean hirugarren bada-gore ere, batek baino gehiagok esan du Oriok benetan denboraldi ona egin duela. Juan Angel Garmendiaren hitzetan *bikaina* izan da, *10etik 10ekoa*. *Bigarren mailatik igo, berriz ontzia moldatu, lau arraunlari esanguratsu joan eta beste lau etorri, eta, hala ere, uste zena baino hobeto aritu dira. Ohorezko txandan sartzea zen asmoa eta goitik egon dira. Kontxan ere ongi ibili dira, txanda irabazi dute, benetan denboraldi ezin hobea.*

Ospakizuna, egin duten bezala, arraunlariak eta herritarrek egin beharrekoa dela ere esan du Garmendiak, baita etorkizunerako moduko jendea dagoela ere.

Beraz, datorren asteburuan ea ez zaien kale txarrik tokatzen. Kontxan bezalaxe, Ibaiazabalgo uretan ere kale batetik bestera alde handiak egon daitezke eta. Herriak *alironerako* badu egarria.

NESKEN TRAINERUA UBERA UTZIZ

Badira ia bi aste nesken taldeak azken entrenamendua egin, arraunak jaso, trainerua garbitu eta denboraldia bukatu zutela.

Klaudio Etxeberria izan dute entrenatzaile. Denboraldi hasieran taldea osatuko ote zuten zalantza izan ondoren, bukaeran irakurketa positiboa egin du: *Euskotren ligan sartzea genuen helburu. Hiru talde oso osatu zeudela bagenekien, baina bestetan zegoen zalantza. Ikusi genuen borrokatzeko moduan ginela eta erraz antzean sailkatu ginen. Barruan egonda, beti azkena ez gelditzea zen gure erronka eta behin gutxienez gertatu da eta denboraldiarekin pozik gaude.*

Kontxarako zalantza zuten Galiziatik zein etorriko zen edo azken unera arte hango talderik Kontxan izango zen ere, baina etorri eta oriotarrei aurrea hartu zieten. *Sailkapen egunean gure maila eman genuen, baina besteak hobeto aritu ziren. Pena izan da gure paretsu ibili-lehen igandean ere minutu erdira iritsi ziren - eta aurreratzea, dio Etxeberriak.*

Denboraldia bukatu bai, baina denek erakutsi dute hurrengoan jarraitzeko asmoa eta entrenatzaileak ere ongi ikusten du taldea. *Jaz taldekide batzuk nahiko helduak ziren eta besteak oso gazteak eta aurtan orekatuago izanik ez da arazorik egon. Arraunean gorakada handia izan dutela eta aurrerantzean ere gora egingo duten ustea azaldu du: jende oso gaztea da, sailkapen egunean 19,4 urteko batez bestekoa zen gure arraunlarien adina eta besteetan 24-25 urtekoa. Beraz, oraindik bada denbora gora egiteko.*

Maila hobea eta horretarako jende gehiago gaizki ez. Bateletan Espainiako txapeldun izan diren lau neskek badute taldean sartzeko aukera, Oriotik joandako beste bi itzultzekoak dira eta Getariak trainerua osatu ezean seguru asko Oriokoekin jarraituko dute. *Klaudio Etxeberriak, bide batez, dei egin nahi die arraunean aritu nahi duten Orioko neskei gerturatzeko. Ni ere gustura nago eta neskek eta zuzendaritzak nahi badute aurrerantzean ere ondoan izango naute.*



Udako aurkikuntzak

Ratzuen zorionerako eta beste zoritxarrerako, baina uda joan da. Niretzat gehiago du bigarren horretatik lehenengotik baino. Dena dela, kexatzen ibiltzeak ezertarako balio ez duela eta, hurrengo urtekoa iritsi bitartean ikasturte gogorrari adarretatik helduta hastea erabaki dut. Hobe izango da horrela, bai.

Uda honetan egin dudana *deskubrimentu* handienari buruz hitz egitea gustatuko litzaidake. Uztailean, koadrilarekin Balkanak ezagutzera joan nintzen, bizkarrean motxila handia hartuta. Hura pisua! Ekipaiaren artean, treneko orduak betetzeko hainbat liburu. Guztien artean, kilo bat eta erdi bai gutxienez. Lagunetako bik liburu elektronikorietako bat zeramaten. Beti izan naiz liburu tradizionalaren aldekoa, eta hasieran ez nuen inolako kuriositateirik izan haiek zeramaten tramankulu hura probatzeko.

Treneko bidaia luze horietako batean,

ordea, nire paperezko liburu motxilan utzi nuen ahaztuta, eta lagunetako batek liburu elektronikoa, *e-booka*, utzi zidan. Pena eman nion, antza... edo nahiago izan zuen lo egin. Batek daki. Kontua da, nire lehen esperientzia bizi ahal izan nuela liburu eramangarri batekin. Lehenengo orria irakurtzearekin bat, neuzkan aurreiritzi guztiak desagertu ziren. Onartu behar dut hasieran gehiegitxo kostatu zitzaidala orriak nola pasatzen ziren topatzea. Baina tira, horretaz aparte, ez zitzaidan iruditut, betiko irakurketarekin alderatuta, desberdintasun handiegirik zegoenik. Eta 170 gramo eskasetan nahi beste liburu eramatea zoragarria da.

Gailuarekin emozionatuta, etxera bueltatutakoan apur bat ikertzeari ekin nion. Suposatzen dut zuetako askok eza-

gutuko dituzuela inguruabar eta xehetasunak, eta beste askok gozatu ahal izango dituzuela. Oraindik ezkor zaretzen horiei aproba egiteko esan nahiko nizuke. Gaur egun, inprimatutako liburuena bezain besteko merkatua aurki dezakegu formatu elektronikoa, eta gainera, horietako asko eta asko doan. Ordaindu behar direnak ere, normalean, paperezkoak baino merkeago eros daitezke. Ber-

tio piratak topatzea ere ez da zaila, baina beno, ez naiz ni izango horretara bultzatuko zaituztena.

Badakit liburuak, behin irakurrita, oso dotore geratzen direla hormako apaletan. Bai, ni ere iritzi horretakoa naiz. Baina kontutan izan behar dugu euskarri berri horri ateak irekitzeak ez duela zaharrari ate horiek istea suposatzen; irakurketak dakarren plazeraz gozatzeko bide berriak bilatzea baizik. Kostata, baina konbentzitu nau asmakizunak, eta oso pozik nago! Ziur nago hurrengo bidaian nire bizkarrak eskertuko duela.



azkue
Tf: 943 13 04 38

ARISTERRAZU
jatexea
Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

bodegas ERRASTI, S. L.
Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardandegi,
Arabar Errioxako ardoak
Eusko Gudari, 46. ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

uranga
autozerbitzua
Aliprox
Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

elkaritegia
ANTILLA
jateleku
Mestari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Igo zaitetz haize berrietara!
Galerna I
943890416 - 677149934
galerna.orio@hotmail.com

Kinkladenda - Ume arropa
argine
www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89
25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Oriotarrak garelako

Barrenak askatzeko-edo jardun naiz azken denboraldi luze honetan idatzi eta idatzi eta aitortu behar dut benetako terapia izan dela niretzat. Baina aspaldiko partez *enkarquiz* idatzi behar honek kezkatu egin nau.

Adarretatik helduta atalean azaltzeko moduko iritzi artikulua bat egingo ote nuen galdezka etorri zitzaidan Irati delako bat. KARKARA digitalean begiratu dut eta bai, erredakzio taldekidea da Irati! Garai batean titulu hori ere izan nuen neronek...

Beraz, agindutakoa betetze aldera, burutazioak alde batera utzi eta ekin beharko diot lanari. Gai jakinik ez omen dago, librea da. Baina aspaldi ez dudanez ikusi neure burua besterik gabe orri zuriaren aurrean, zer esanik ba ote dudan galdetuz ekin diot idazteari. Herritarra izanik, zeri buruz irakurriko nuke nik gustura atal hau? Data kontuan izanik, Kontxa pasata izango dugu. -Gurea izango ote da aurten? Puff! Nahiko nuke!-. Politikaz ez naiz ba hasiko! Ez, horretarako bada nahikoa jakintsu! Eta orduan, zeri buruz eman dezaket nire iritzia?

Ostras, benetan lan zaila!

Azkenean edozein gairi buruz iritzia eman beharrean badakit zer egingo dudan. Hurrengo *Adarretatik helduta* ataletarako gai jartzai-

Azkenean edozein gairi buruz iritzia eman beharrean badakit zer egingo dudan. Hurrengo Adarretatik helduta ataletarako gai jartzaile izendatuko dut neure burua. Beste batzuei lan hau errazte aldera-edo. Hori bai, gaiak aurkezteko garaian argi dut nire ikuspuntua nabarmenduko dela

le izendatuko dut neure burua. Beste batzuei lan hau errazte aldera-edo. Hori bai, gaiak aurkezteko garaian argi dut nire ikuspuntua nabarmenduko dela eta horrela nire erara bada ere, Iratik eskatutakoa beteko dut. Bueno, azken finean iritzia emateko modu *erraza*-go bat topatu dut:

1. Gazteria izan daiteke gai polita: baditugu gaztetxe bat, gazte-lekua eta baita gazte lokalak ere. Guztiak dira beharrezkoak? Dauden moduan ondo al daude ala norbaitek zerbait egin beharko luke egungo egoera aldatzeko? Zergatik sortu dira horrelako lokalak? Zertan aldatu dira gure gazteak? Zaharragoak al dira gaur egun?

2. Orion arraunaz gain badira beste kirol batzuk ere. Zer dakigu gure oriotarrek kirol horietan egin eta lortu dutenari buruz? Nori dagokio informazio hori zabaltzea, KARKARARI?

3. Zein beste afizio/ofizio dugu oriotarrok? Gai hau bai izan daitekeela luzea. Nik adibide pare bat edo jarriko nituzke: moila gaina, *Kutixing, Bordatxing, Plazing...*

4. Herritik kanpora joanez gero hamar minutuko ibilalditxo motxa dela deritzogu gehienok. Orduan, zergatik hartzen dugu autoa herrian bertan kafea hartzeko geratzen garenean?

5. Berez hain herri sortzailea izanik -begira bestela kirolean, dantzan, musikan, literaturan etabarrean ditugun talde eta banakoak- zergatik ez dira plaza, kiroldegia, frontoia, Kultur Etxea etabar ia inoiz betetzen besteek antolatutako kontzertu, ekitaldi, antzerki edo mintzaldiak direnean?

6. Ba al da herrian oriotarra izateaz harro ez dagoen inor?

7. Herriko festetan baserritarrez edo arrantzalez janzteia zenbat kostatzen zaigun ikusita nolatan joaten da gure gazteria *Euskal Jaiez* jantzita Zarautza?

Ea bada oriotar-irakurle, utzi nagia alde batera eta hasi idazten! Nik nire lana bukatu dut. Edo ez.

Baietz gutxienez hogeit hamar oriotarrek eman erantzuna nire galderei!

Neskak inon ez

Ze Kontxako estropada garratza. Gozo hasi -estropada bera sekulakoa izan zen: estua, bizia, betea- eta gazi bukatu; oso gazi, mikatz edota garratz. Donostian bertan gertatutakoaz ez dut nik ezer berririk gehituko; kazetari batek beste bati esandakoa bakarrik ekarriko dut lerrootara: a zer putetxea! Donostian bertan gertatutakoaz ez dut nik ezer berririk gehituko; kazetari batek beste bati esandakoa bakarrik ekarriko dut lerrootara: a zer putetxea!

Orion ikusitakoak, ordea, barrena mugitu zidan. Ongi etorrikerik ez zegoen berez bigarren igandean gurean. Arraunlariek, ordea, zale guztiak eskertu nahi izan zituzten eta udaletzeko balkoi-ateratzeko baimena eskatu zuten. Eskatu eta eman. Plaza bete jende Kontxan egindako lana txalotzeko; batzuek Kontxan egindako lana txalotzeko. Ze non ziren arraun elkarteko neskak? Haiek ere ahal zutena egin zuten bandera etxera ekartzeko. Ezin izan zuten gehiago egin; *ez zegoen gehiago!* A zer mespretxua. Horrek ere *deskalifikazioa* ekarri behar luke. Hori izango da emakumezkoen kirola bultzatzea! Eta inork ezer aipatu ez, isilik, laga, libre!

Emakumezkoak ez, baina xanpaina gonbidatu zuten festara!

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behea. 20810 Orio





MIRANDA
LANTZ LANAK

tarina, ate, leiho, eskafera...
behar diren arotz lanak
egingo dituzugu

Udareta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ

le apaindegia

MARIJO



Neska eta
mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

PERTSIANAK

A K O M A Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 83 91 01 Magikorra 600 70 52 27

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK



ROSA

GARBINE ARRILLAGA
ARIZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43

www.factbook.com/943131943

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

<p>Fabrika Agote Industrialdea Agote, 5, 20740 Zentxa</p>	<p>Erakusketak San Prantzika, 1, 20800 Zarautz</p>	<p>Alta Lertxundi, 21, 20810 Orrio Tel: 943 89 49 36</p>
---	--	--

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino
eramaten ditugu**



943 83 09 84

alta lertxundi, 36
ORIO



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943. 572083
FAX - 943. 571190
Lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
IBAI ONDÓ 13
20810 ORIO



**Zaragueta
Herri Eskola Orrio**

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



**Orioko
Herri
Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orrio (Gipuzkoa)

TANATORIO ZARAUTZ



EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldioroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: hazresp@hazrespil.net



sinergia investigación
fisioterapia

FISIOTERAPIA Gariñoz Aristeegi eta Natalia Wierzeszen
NUTRIZIONISTA Gariñe Aizpuru

ibai ondó, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

**Automóviles
ZARAUTZ**

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

bigailu berriak
eta is berriak
sargi

ZARAUTZ, Tel. 943 13 13 50



MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Santiago azua - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tnmanterola@tmanterola.com
70810 ORIO - GIPUZKOA

Esferako balbulak
AENOR kalitate sartagorriarekin



Altxerri patroi, 1971n Oriok Kontxako bandera irabazi berritan. ARTXIBOA

Altxerri, lehengo arraunlari zaharretakoa

Oroimenaren kutxa

Aurtengo San Fermin egunean joan zitzagun Juan Lizarralde, Orioko arraunak bere ibilbide luzean eman duen arraunlari eta patroi handienetako bat. Etsitzen ez zekienetakoa. Lehengo garaiak mitifikatzeko joesa dutenek *lehengo zaharretakoa* esaten dute. Halakotzat joko dugu guk *Altxerri*: Arraun Olinpikoko Kluba sortu aurreko garaia ezagutu zuena. Lehengo eta

oraingoa lotzeko kate-begia. Klubaren sortzaileetakoa. Arrauna modernizatzeko aurrerapauso historikoa eman zuen belaunaldikoa. Arraunlariak estropalari huts izateko kirolari eta atleta izateko urratsa eman zutenetakoa. Elikadurari buruzko topikok, entrenamenduen gaineko uste okerrak gainditu eta arraun-kirolean oinarri sendoak jarri zituztenetakoa.

Lehengoetakoa izatearen zertzelada batzuk: 1950ean, 16 urte zituela, batel-estropadetan eskuratutako 600 pezetekin batela erosi zuten Toloan, hara oinez joanda.

1955ean, herriak trainerilla erosi zien; arraunak, patriak beren dirutik. Batela autobus zahar baten gainean, Pasaiako estropadara zihoazela, autobusak hartu zuen Iru-biden; baina estropadara garaiz iritsi ziren: handik Franco pasatu zen, komitiba osoarekin, auto haietako bateko su-itzalgailuarekin sua amatu, eta gero geratu zitzairen kamioi batean eraman zutelako arraun-ontzia. *Altxerrik* bazekien goizeko sei eta erdietan entrenatzen, 10 orduko lan-saioari ekin aurretik.

Denetik ezagutu zuen bere ibilbide luzean, onetik eta

txarretik. Donostiako bandera 10 aldiz irabazia; Orioko Kontxako bandera gehien emandako patroia -6-; traineruan Espainiako sei txapelketa eskuratua, lau segidan: 1973tik 1976ra. Oxford eta Cambridgekiko estropada historikoetan izana. Orioko traineruak sekula izan duen arorik loriatsueneko patroia. Arraunlari-garaian patroi-lanetan irakasle onak izandakoa: Mitxelena eta Sarasua.

Momentu txar askoak ere gertutik ezagutu zituen: Orioko lau arraunlariren 1972ko trafiko-istripua, tartean bere anaia Jose Ramon zegoela; 1984an, *Altxerri* traineruko txopatik kentzeko udaletxean batzarra egin eta bota zuteneko istilu latza...

75 urterekin ere kirolzale baten bizimodua egiten zuen *Altxerrik*, noiznahi ikusiko zenuen Juanito Kukuarriko tontorrera bizikletan igotzen. Nekatzen ez zenetakoa zen, hori esaten zutenetakoa behintzat. Luis Azkue bere jarraitzaile fidelenak esana da hori: *Altxerri nekatur zegoela esatea iraintzea bezalakoa zen.*

Bere oroimena indarra galtzen hasita zegoela ere, gaztetan arraunean egindako bi lagunekin ibiltzen zen Juanito, beste bi Juanitorekin: Azpiz eta Txokolate. Haiekin eta emazteekin egin zuen Altxerri bere azken ospakizuna aurtengo San Juan egunean, haien egunean.

Herri txiki honen historia handian, arraunlarienean, leku nabarmena bete du Altxerri, ubera sakona utzi; oriotarro, eta arraunzaleok, oroimenean izango duguna.

[IÑAKI ITURAIN]

943 572-870

KOASTA

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

KOLON TXIKI

estropada jaiak

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 40
Tel. 943 83 07 84 Fax: 943 83 07 13

LURDES

ERRANDEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24



Maria Mamerta argazkilaria, Iturraran Parketxeko erakusketan bere lanekin. MARIA MAMERTA

Barru argia, lorategia baserriko hormetan

Kritika Erakusketa

Argazkilaria: Maria Mamerta.

Iturrarango Parketxeak ateak zabaldu dizkio lorategiari. Maria Mamertaren erakusketak kolorez zipriztindu ditu XVIII. mendeko baserriaren pareta zuriak. Landarediak eraikin barneko hutsuneak bereganatu dituela dirudi. Armiarma, galburu eta arantzen irudiek haritz egurrezko haben eta harri mardulen arteko tartek bete dituzte.

Pagoetako udako ekintza berezian harira, irailaren 15era bitartean Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak antolatutako erakusketa

ikusteko parada dago. Parke txeko sarrera ordainduta, argazkiez gain, baserriko lanabesak, ikus-entzunezkoak eta maketak daude ikusgai.

31 argazkiz osatutako irudi bildumak Lorategi Botanikoaren ezohiko ikuspegia eskaintzen du: orein mihien fronde kiribilduak parez pare dantzan, irudi geometriko bixiak osatzen dituzten zurtoinetan zintzilik ageri diren ihintz tantak edo itsaspekoak diruditen formak. Eskala txikiago batean gordeta zeuden xehetasunak azalera lortu du egileak.

Hainbat tamainako argazki-sorta bildumatan taldekata ageri da. Honela, kolore eta formen arteko jolasak,

ametsak iradokitzen dituzten fokatu gabeko baso irudiak, forma geometrikoen aniztasuna edo bitxiloreen edertasuna eta higidura sentsazioa adierazten duten lanak erakusten zaizkigu.

Iturraran baserria ezagutzen duenak badaki landare igokarieketan erleek arkupeko zutabeak eta egur ohol zaharrek eskaintzen dituzten ezkutalekuak maite dituztela. Aurrez Parketxe eta Lorategi Botanikoaren arteko harremana estua bazen, udaran zehar, erakusketa honi esker harreman hori are estuagoa bilakatu da.

IASIER GOIA URIGAIN
ITURRAN PARKETXEA

Ikasleak idazle
Maialen Rodriguez

Lapurretak

Guztiok dakigun bezala, azkenaldian, Orion, lapurreta asko gertatu dira, bereziki komertzioetan –tabernak, optika...–, baina hauez gain, etxe batzuetan ere lapurtu dute.

Gainera, ohikoena gauetan edo iluntzean lapurtzea litza-teke, inork ikusteko arriskurik egon ez dadin, baina egun argiz gertatu dira gehienak. Horrela, Orion segurtasun falta handia dagoela ikus dezakegu, bestela ez



lirateke horren erraz sartuko, gainontzekoek susmo txarririk izan gabe.

Bestalde, argi dagoen bezala, lapurtzen dietenei sekulako kaltea egiten diete. Egia da krisia dela-eta ez garelako momentu errazetatik pasatzen ari eta lapurretak horregatik gertatzen direla, baina kaltetuengan pentsatzen hasiz gero, emandako zartada izugarria da.

Beraz, honen bitartez, herriko segurtasuna hobetzea eskatzen dut guztion hobe beharrez.

Egia da krisia dela-eta ez garelako momentu errazetatik pasatzen ari eta lapurretak horregatik gertatzen direla



» INKESTA

Irudikatzen al duzue Karkararik gabeko Aia edo Orio?

465 erantzun jaso ditu galderak. %81ek baietz esan du, %16k ezetz, %1ari bost axola zaio kontua eta %0k ez daki zer esan gai honen inguruan.

**HURRENGO GALDERA**

Nola zuen abizena kanpotik etorri eta aliron kantuaren hitzak asmatu zituenak?

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailtza 342. Karkaran argataratuko dugu.

» OSPAKIZUNA

**Zorionak zilarrezko ezteietan**

Aiako Jesus Mari Arruti eta Maria Jesus Ansa elkarrekin ezkondu zirenetik joan den irailaren 10ean bete ziren 25 urte. Hainbeste urteren ondoren, zilarrezko ezteiak ospatu dituzten honetan, muxu handi bana eskaini eta biek batera beste horrenbeste urtean jarrai dezatela opa nahi diete maitasunez familiakoek. Zorionak bikote, bihotz bihotzez.

» ZORITXARRAK!

Menuak gaztelaniaz

Bada etxetik kanpora, jatetxeetan, bazkaltzen duen jendea eta uda garaian are gehiago. Hori dela eta Aian eta Orion, tabernen kanpoko aldean, kartelak jarri ohi dituzte menuak iragarri. Badute, ordea, akatsa menu horiek: asko gaztelania hutsean idatziak daude.

Herritarrak zein Euskal Herriko txokoetatik bisitan etorritakoak ez al dira gai euskaraz ulertzeko? Gehienak bai, noski.

Bestalde, atzerritik goseak datozen askok ez ulertu arren, bi hizkuntzetan jarriz gero, gutxienez jakingo luke te gurean ongi jateaz gain, gaztelania ez ezik beste hizkuntza bat ere erabiltzen dela ahoa goxatzeko.



Ekaineko sarituak:

Josebe Azurmendi

(Uraitz lurrindegian)

Mari Angeles Lizarralde

(Eki-Lorea belar dendan)

» JAIOTAKOAK

- Eider Elola Calderon, Orion, irailaren 6an.
- Mehdi Ben Cheikh Madrane, Orion, abuztuaren 26an.
- Mikel Peña Lizaso, Orion, abuztuaren 21ean.
- Afnan Naciri, Orion, abuztuaren 13an.
- Jare Zinkunegi Gozategi, Orion, uztailearen 24an.
- Mara Inclan Arenal, Orion, uztailearen 13an.
- Naia Muruamendiaraz Lopetegi, Orion, uztailearen 15ean.
- Amaia Azkonabieta Ivacs, Orion, uztailearen 4an.
- Paul Rubio Caballero, Orion, ekainaren 12an.
- Telmo Beristain Murgiondo, Orion, ekainaren 12an.
- Haitz Larrañegi Paredes, Orion, ekainaren 10ean.

» EZKONDUTAKOAK

- Maitane Menendez Martin eta Aitor Salgado Elorza, Orion, irailaren 7an.
- Xabier Garate Aiestaran eta Patricia Damian Corballo, Orion, uztailearen 20an.
- Alazne Arozena Arriola eta Xabier Murgiondo Aierbe, Orion, uztailearen 14an.
- Eduardo Mujika Montes eta Karen Tejado Sanchez, Orion, uztailearen 6an.
- Silvia Padrones Gonzalez eta Mikel Aranzabal Urbieto, Orion, uztailearen 4an.
- Iñigo Eizmendi Zaldúa eta Leire Manterola Eizmendi, Orion, ekainaren 22an.

» HILDAKOAK


- Anttoni Azpiroz Etxabe, Aian, irailaren 6an, 87 urte.
- Maria Frantziska Genova Mendizabal, Orion, abuztuaren 28an, 81 urte.
- Trini Gurrutxaga Etxezarreta, Aian, abuztuaren 27an, 70 urte.
- Rafael Avila Montero, Orion, abuztuaren 25ean, 86 urte.
- Frantzisko Arruabarrena Elizalde, Orion, abuztuaren 16an, 90 urte.
- Feliciano Agirre Huegun, Aian, abuztuaren 8an, 73 urte.
- Agustin Zaldúa Iparragirre, Orion, uztailearen 24an, 49 urte.
- Mari Karmen Gurrutxaga Etxezarreta, Orion, uztailearen 10ean, 71 urte.
- Juan Lizarralde Garate, Orion, uztailearen 7an, 79 urte.
- Miguel Romero Prieto, Orion, uztailearen 2an, 82 urte.
- Asuncion Zuloaga Azkue, Aian, ekainaren 27an, 91 urte.
- Frantzisko Sarasua Aldaz, Orion, ekainaren 26an, 81 urte.
- Luis Azkue Azkue, Orion, ekainaren 19an, 90 urte.

Frantzisko Arruabarrena Elizalde

jauna

2013ko abuztuaren 16an hil zen, 90 urte zituela.

Senitartekoek bereziki eskertzen dituzte jasotako samin agurrak baita hiletara joan izana ere.



Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69
Bichua kalea, 4 - 20.800 ZARAUTZ
URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA
Fotografiak, kupturak, 19an



RAMIRO
argazkiak
www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com
610 69 76 68
943 83 10 48

“Baterre musikarik gabeko bizitza, bizitza laua da”

Marc Molina

Musika ekoizlea

Bartzelonatik Oriora etorri eta erraz maitemindu da hemengo jende eta jateko onekin eta aurkitu duen etxeko lasaitasunarekin. Musika elektronikoa ekoizten duen mutil kataluniar honek aurkitu du bere txokoa Orion.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Musika zalea da Marc Molina eta zaletasuna lan ere baduena. Adierazpen modua ere bada musika beretzat. Estudioan pasatzen ditu ordu asko, egindakoa gero jende artean zabaltzeko. Aurki izango da Orion, Kalakari tabernan ekoizle honen musika zuzenean entzuteko aukera. Birtartean Orion aurkitutakoari eta musika elektronikoren inguruan Euskal Herrian ikusi eta entzun duenari buruz hitz egin dugu berarekin.

Nola hartu zaituzte Orion?

Oso ongi. Euskaldunak oso itxiak zaretela esaten duzuen arren niri ez zait hala iruditzen. Urtebete da etorri nintzela eta azkar kokatu naiz herrian. Hemen lagunak ere egin ditut eta elkarte askotara ere gonbidatu naute jadanik.

Ezberdintasun handia al dago Bartzelonan edo Euskal Herrian ekoiztearen artean?

Leku on batean lur hartu dut. Hemen, Katalunian ez bezala, landa eremu batean daukat nire estudioa eta horrela ez ditut nire soinuekin ingurukoak molestatzuten. Lan egiteaz gain, inguru honek aukera ematen dit, musika entzunez –nik sortutako doinuak– hondartzara paseoan joateko. Hirian auto-pilaketen artera ateratzearekin konparatuz ezberdina da benetan.

Nolako musika egiten duzu?

Musika elektronikoa. Soinu minimalistak –gauza gutxiarekin egin daitezkeenak– dira nire bereizgarri eta beti lau-lauko erritmora fidel naiz. Azken aldian erritmoa jaisten ari naiz musika geldoago eta sexiagoa sortuz.

Zer da musika zuretzat?

Adierazpen modu bat, pozik nagoenean desinhibitzeko edo emozioak sentitzeko ferra bat. Nik uneoro entzuten dut musika eta ez teknoa bakarrik. Baterre musikarik gabeko bizitza bizitza laua da.

Euskal Herria etorrita, musika elektronikoa dagozue, ekoizle onak aurkitu al dituzte?

Badira ekoizle euskaldunak nazioartean sona handia dutenak eta hemen apenas ezagutzen direnak. Izan ere, esaerak dion bezala, norbere herrian inor ez da profeta.

“Hemen, Katalunian ez bezala, landa eremu batean daukat musika estudioa eta horrela ez ingurukoak molestatzuten nire soinuekin”

“Ni ez naiz emanaldietarako bereziki prestatzen. Kantu aukeraketa ona egingo dut eta saiatuko naiz saio dotorea eskaintzen”

Datorren hilean emanaldia eskainiko duzu Kalakari tabernan. Saioa prestatzen ari al zara?

Ez, nik ez ditut emanaldiak bereziki prestatzen. Kantu aukeraketa ona egingo dut eta gaua aurrera doan ahala eta ikusten dudana giroaren arabera moldatzen dut saioa. Kalakarin saiatuko naiz saio dotorea eskaintzen. Denbora errealean sortuko ditut kantuak teklatuarekin eta beste hainbat sorpresarekin. Plazer handia da nire lagun Oierren tabernan musika saioa egitea, izan ere, etxean barenengo bezala sentitzen naiz. Gaur egun gehien gozatzen dut jai txikietan eta jende ezagunaren artean.

Deskarga digitaleko ziguil bat ere zuzentzen duzu. Asko saltzen al da?

Garrantzitsuena ez da saltzea, norbere musika ahalik eta DJ gehien ordenagailuetan egotea baizik.

Nolako etorkizuna aurreikusten duzu, 080 records, zure ziguiluentzat?

Hainbat aurkezpen prestatzen ari naiz 080 records-entzate eta, aurki, baliteke sorpresaren bat izatea Orioko lokal batekin.

Beste proiekturik ba al duzu?

Orion musika-elektroniko jardunaldiak antolatzeko asmoa eta gogoia dut, zerbait erakutsiz talentu berriak bilatzeko helburuarekin.



080 RECORDS

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Saltzeko

■ Hozkailu berria salgai. Orain dela lau hilabete erosa. Tf: 626 018 292.
 ■ KIA Carens 1.8 monobolumena salgai. Matrikula: BVV. Tindatutako beirak, parrilla eta kutxa ditu. Erabat txukun. Asegurua 2014ko martxora arte. 2.500 euro. Tf.: 674 076 785

Erosteko

■ Lur zati bat erosiko nuke Aia, Orio edo Zarautz inguruan. Borda baldin badauka hobe. Tf.: 615 790 965.

Lan eskaera

■ Edadeko gizonzkoak zaintzeko edo beste

edozein lan egiteko prest. Gizonezko gaztea, arduratsua eta zaintzan esperientziaduna. Tf.: 632 569 121.
 ■ Edozein lan egiteko prest nago 10:00etatik aurrera. Tf.: 666 116 641

Alokagai

■ Andra Mari auzoan 100 metro koadroko etxebizitza alokagai. Hiru gela eta bi bainugela. 700 euro hilabeteko. Tf.: 680 624 458
 ■ Apartamentua alokagai Hondartza kalean. Logela bat. Guztiz ekipatua. Bikote batentzako aproposa. Tf.: 663 447 266.

Alokatzeko

■ Sarrikon Marketing

gradua ikasten hasiko den oriotarra Bilbon partekatutako etxebizitza bila. Norbait pisukide bila ezagutuz gero deitu. Tf.: 658 520 392.

Erosteko

■ Lur zati bat erosiko nuke Aia, Orio edo Zarautz inguruan. Borda baldin badauka hobe. Tf.: 615 790 965.

Galdutakoak

■ Kartera gorria galdu dut. Barruan bost *pendrive* ditu. Norbaitek aurkituko balu, Kultur Etxeko harrerara ekarri mesedez.
 ■ Ume baten txaketa bakeroa aurkitu dut Baxoalde kalean. Galdu duenak deitu: 943 831 998.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
13	10:59 eta 23:48	04:36 eta 17:21	☾
14	12:28 eta _____	05:56 eta 18:46	☾
15	01:18 eta 13:49	07:18 eta 20:03	☾
16	02:30 eta 14:54	08:27 eta 21:04	☾
17	03:27 eta 15:47	09:23 eta 21:55	☾
18	04:15 eta 16:34	10:12 eta 22:40	☾
19	04:58 eta 17:16	10:56 eta 23:21	☾
20	05:37 eta 17:56	11:37 eta _____	☾
21	06:15 eta 18:34	00:00 eta 12:16	☾
22	06:52 eta 19:11	00:38 eta 12:55	☾
23	07:29 eta 19:49	01:15 eta 13:34	☾
24	08:06 eta 20:27	01:52 eta 14:14	☾
25	08:46 eta 21:11	02:32 eta 14:58	☾
26	09:33 eta 22:06	03:16 eta 15:50	☾
27	10:36 eta 23:22	04:12 eta 16:57	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

IRAILA	Azaldegi:
■ 13an, Etxeberria.	Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
■ 14 eta 15ean, Gallo.	Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
■ 16an, Iriarte.	Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
■ 17an, Larrañaga.	Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
■ 18an, Mutiozabal.	Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
■ 19an, Etxeberria.	G. Artiano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
■ 20an, Gallo.	Iriarte: Zinkunegi, Pilar txo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
■ 21etik 27ra, Lasa.	Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
■ 28 eta 29an, Larrañaga.	
■ 30ean, Mutiozabal.	
URRIA	
■ 1ean, Etxeberria.	
■ 2an, Gallo.	
■ 3an, Azaldegia.	
Gaueko zaintza: Iriarte.	

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:14	6:44	7:14	7:44	8:14	8:44	9:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	6:20	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:20	7:38	8:08	8:20	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08	22:40
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:25	7:45	8:15	8:25	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:47
Donostia	6:39	7:09	7:39	7:48	8:08	8:39	8:48	9:09	9:39	10:39	11:39	12:39	13:39	14:09	14:39	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:11

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugipuzkoa.com. Grisez dauden orduetan trenak daude lanegunetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ORIO-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:30	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:40	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:00			

ZARAUTZ-ORIO-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25

OSPITALEAK

OSPITALEAK-ORIO-ZARAUTZ

Ospitaleak	8:10*	8:15	9:15	10:15	11:15	13:15	14:15	15:10*	17:15	18:15	19:15	20:15	21:15	22:10*
Orio	8:30	8:55	9:55	10:55	11:55	13:55	14:55	15:30	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55	22:30
Zarautz	8:40	9:05	10:05	11:05	12:05	14:05	15:05	15:40	18:05	19:05	20:05	21:05	22:05	22:40

ZARAUTZ-ORIO-OSPITALEAK

Zarautz	7:15	7:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:10	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15
Orio	7:25	7:55	8:55	9:55	10:55	12:55	13:55	14:15	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:25
Ospitaleak	7:45	8:15	9:15	10:15	11:15	13:15	14:15	14:45	17:15	18:15	19:15	20:15	21:15	21:45

Zerbitzua autobidetik, lanegunetan bakarrik. *Donostia Pio XII-tik hasten da, 5 minutu inguru Ospitaleetara iristeko.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ORIO-ZARAUTZ

Donostia	8:00	...ordu oro...	22:00	22:30
Orio	8:35	...ordu oro...	22:35	23:05
Zarautz	8:45	...ordu oro...	22:45	23:15

ZARAUTZ-ORIO-DONOSTIA

Zarautz	6:45	...ordu oro...	21:45
Orio	6:55	...ordu oro...	21:55



Zapore eta usain saltsa

Iturrarango Lorategi Botanikoaren baliabideak aprobetxatuz, Clara Gutierrez biologoaren eskutik *Usaindun Altxorraren bila* tailerra eta zentzumen jolasak egingo dituzte irailaren 15ean parketxean landareak ezagutuz eta lurrin eta aire-gozatzaileak eginez. 11:00etatik 13:00era egingo dute jarduera gaztelaniaz eta gehienez 25 laguneko taldean. Helduek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta 5 eta 12 urte artekoek 3 euro.

Orio

Musika

■ Irailaren 13an, reggae kontzertua: Manex Barrenetxea, Eñaut Arregi *Teo*, Asier Urdangarin eta *Txulorekin*, 23:30ean, Kalakari tabernan.

Mandalaren ikastaroak

Astelehenetan:

- Tarot kontsulta, 14:30-17:00etara.
 - Yoga, 18:30-19:30.
 - Energia, 20:00-21:30.
- Astearteetan:
- Chikung CFQ, 08:30-10:00 eta 20:00-21:30.
 - Erretiratuentzako yoga 10:00-11:00.
- Ostegunetan:
- Erretiratuentzako yoga, 10:00-11:00.
 - Meditazio gidatua, 14:30-15:30.

- Tarota, 16:00-17:30.
 - Astrologia, 18:00-20:00.
- Ostiralean:
- Yoga, 10:00-11:00 eta 18:30-19:30.
 - Hitzaldiak, 20:00-21:30.
- Ikastaro guztiak Mandalara taldearen lokalean: Antxiola kalea, 15-behea. Informazioa: 648 487 489.

Hitzaldiak

- Irailaren 20an, *Transurfing, bizitzaren olatuak surfeatu hitzaldia*; hizlaria: Frank Sanchez, 20:00etan, Mandalara taldearen lokalean.
- Irailaren 27an, *Mandalak -zer dira, zertarako...-*; hizlaria: Karnele Garmendia, 20:00etan, Mandalara taldearen lokalean.

Traste zaharrak

- Irailaren 25ean, traste zaharren bilketa, ohiko zabor

ontzien ondoan. Atera aurretik udaletxera deitu zer aterako duzuen jakinaraziz. Tf.: 943 830 346.

Irteera

■ Irailaren 28an, Kayak Oria ibaian, 10:30ean, Turismo Bulegoan. Iraupena: 2 ordu. Prezioa: 12tik 16 urtera, 8 euro; gainontzekoak, 15 euro. Izen ematea: Orioko Turismo Bulegoan -943 835 565-.

Erakusketa

■ Irailaren bukaerara arte, arraunari buruzko argazki erakusketa; argazkilaria: Joxejulian Olasagasti Arruti, Salatxo tabernan.

Kirola

■ Irailaren 21 eta 22an, Surf eta Bodyboard Txapelketa. Izen ematea: OSTren lokalean -8 euro, marmitakoa barne-.

Aia

Podologoa

■ Irailaren 21ean eta, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Erakusketa

■ Irailaren 15era arte, Maria Mamertaren argazki erakusketa, 10:00etatik 14:00etara, Iturraran Parketxean. Sarre- ra: Helduek euro bat, 5 eta 12 urte bitartekoek euro erdi.

Lehiaketa

■ Irailaren 30ean, Aiako argazki lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna- Gaiak: Andatza eta Santio Erreka. Baldintzak: www.aiako.com helbidean.

Atzeko azala: Eusko Jauriaritzak antolatutako auzolandegien baitan arrantzaleen sotoak berri- tu dituzte 30 gaztek abuztu- an. Hormetako batean itsasontzi bat margotu dute GKO Gallery-ko Garikoitz eta Xabierrek.



Clayton Kopp

1964